



Muskizko Udala
Ayuntamiento de Muskiz

2011. urtean Gizarte Zerbitzuen arloko jarduerak eta programak gauzatzeko irabazi-asmorik gabeko erakundeek zein pertsonak diru-laguntzak eskatzeko deialdia.

1. XEDEA.

Deialdi honen xedea honako hau da: 2011n Muskizeko talde babesgabeen prebentzioa, arretoa eta gizarteratzea bultzatzeko, gizarte arloko urteko programak nahiz ekintza bereziak antolatu eta garatzeak sortzen dituzten galera ekonomikoak diruz laguntzea eta diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea. Nolanahi ere, erakunde horien ohiko ekintzak zein ekintza bereziak izango dira diru-laguntza horien xede.

Deialdi honetako diru-laguntzak publizitatearen, lehia askearen eta objektibotasunaren printzipioen arabera emango dira. Horretarako, norgehiagoka prozedura erabiliko da, hau da, aurkeztutako eskaerak alderatu egingo dira, deialdi honetan ezarritako baremoekin bat eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko. Baremo horien arabera baldintzak betetzen dituztenei esleituko zaizkie diru-laguntzak, betiere erabil daitekeen kredituaren eta zehaztutako baldintzen mugaren barruan.

2. AURREKONTUA.

Gizarte Ekintza Sailak 15.000 euroko aurrekontua izango du diru-laguntzak emateko.

3. ERAKUNDE ONURADUNAK.

Diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte Muskizeko irabazi-asmorik gabeko erakunde zein pertsonak, betiere, Udal honetan erregistratua eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratua izanik, muskiztarren intereserako diren gizarte zerbitzuen arloko programak edo jarduerak gauzatzeko badituzte,

Salbuespen gisa, dagokion Sailak hala iritziko balio, Muskizetik kanpoko elkarte eta pertsonak ere izango dute diru-laguntzak eskatzeko aukera, baldin eta beren ekintza gehienak udalerrian bertan gauzatzeko badituzte edota udalerrian interesekoak badira eta egoitza ofiziala eta/edo ordezkari Bizkaiko Lurralde Historiakoan duten Euskadiko Elkarten erregistroan badaude.

4. KANPORAKETAK.

Ondorengo hauek diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Euren xedea edo izaeratik deialdia egin duen Sailaren jarduera-eremuarekin zerikusi zuzenik ez dutenak.
- b) Egoitza Muskizen ez dutenak eta, gainera, udalerrian bertan ekintzak gauzatzeko ez dituztenak.
- c) Euren izaera edo helburuagatik Udaleko beste Sail edo erakunde autonomo batzuen programetan egon beharko lirakekeenak. Nolanahi ere, eskabidea dagokion Sailera edo



Muskizko Udala
Ayuntamiento de Muskiz

erakundera bidaliko da eta horren berri emango zaio interesatuari. pertsona juridikoari edo erakunde interesatuari.

- d) Diru-laguntza izenduna xede duten programak eta Sail honen beste deialdi batzuetan egokiago egon daitezkeenak edo beren beregi ageri direnak.
- e) Jasotako diru-laguntzaren agiria aurkezten ez dutenak.
- f) Sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik dutenak, ezta otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin bat, diru-laguntzak eta laguntzak emateko deialdietan parte hartzeko debekua dutenak ere.
- g) Halaber, dagokion zigorrak ezartzen duen aldian, ezin dute deialdi honetan parte hartu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin administratiboki edo penalki zigortuta dauden pertsona edo erakunde eskatzaileek, ez eta debeku horrekin zigortuta daudeneke ere.
- h) Ez dira diru-laguntzaren xede izango higiezinak erosteko maileguetako finantza-gastuak eta haien amortizazioak, ez eta berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak ere.
- i) Ez dira langileen gastutzat hartuko erakunde edo zentroetako Zuzendaritza-Batzetako edo Kontseiluetako kide gisa egindako jardueren gastuak, baldin eta kideek diru-laguntzaren xede diren jarduerak egiteko lan-kontratupean ez badaude, eta beharrezko titulu egokia eta behar adinakoa ez badute.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Diru-laguntza jaso nahi duten erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Deialdi honi atxikita dagoen eskabide-orria.
- b) Diruz lagunduko den proiektuaren deskripzioa.
- c) Erakunde eskatzailearen ibilbidea adierazten duen memoria: nori osatzen duten, helburuak, gauzatutako ekintzak.
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Behar bezala legeztatutako Estatutuen fotokopia.
- f) Eraketa-akta.
- g) Zuzendaritza Batzorde berriaren aldaketei buruzko akta, halakorik balego. Bertan, erregistro eta/edo zigitatutako liburuaren zenbakia zehaztuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Errolda Nagusiaren Araudia onesten duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuaren arabera (**21. artikulua**: "Gobernu-organoko kideen aldaketa"). Dekretua 2008ko abuztuaren 27ko (asteazkena) EHAA, **162. zenbakian**, argitaratu zen.
- h) Estatutuen aldaketei buruzko akta, halakorik balego. Bertan, erregistro eta/edo zigitatutako liburuaren zenbakia zehaztuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Errolda Nagusiaren Araudia onesten duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuaren arabera (**20. artikulua**: "Gobernu-organoko kideen aldaketa").



Muskizko Udala
Ayuntamiento de Muskiz

Dekretua 2008ko abuztuaren 27ko (asteazkena) EHAA, **162. zenbakian**, argitaratu zen.

- i) Finantza egoerak 2010eko abenduaren 31n.
- j) Bankuko kontuaren titularraren berri ematen duen agiria, deialdi honi atxikitakoa.
- k) Diru-sarreraren eta aurreikusitako gastuen aurrekontua, ondorengo gidoiaren arabera: Gastuen aurrekontua:
 - Hirugarrenei egindako ordainketak (zerbitzuak, laguntzaileak...)
 - Materialen eskuraketa.
 - Sustapena (kartelak, programak, iragarkiak...)
 - Beste batzuk.
- l) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga guztiak eguneratuta dituztela adierazten duten egiaztagiriak.
- m) Zinpeko aitortpena, Sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik ez duela, eta otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin bat, diru-laguntzak eta laguntzak emateko deialdietan parte hartzeko debekua ez duela adierazten duena.
- n) Zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean ez dagoela adierazten duena.

Eskatutako agiri guztiak aurkezten ez badira edo oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen ez badira, 10 eguneko epea emango zaie erakundeei akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaie, horrela egin ezean, eskaera baztertu egingo dela.

Jardueraren inguruko dokumentazioaz gain, Udalak diru-laguntza eskatzen duten pertsonen zein erakundeei jardun horiek balioesteko behar adinako informazio osagarria eska diezaieke.

6. EPEAK.

Deialdia argitaratzen denetik 30 eguneko epea.

7. DIRU-LAGUNTZAK BALIOESTEKO ETA EMATEKO IRIZPIDEAK.

Udal gizarte zerbitzuek txosten teknikoa egin ondoren, Udal Gobernu Batzordeak balioetsiko ditu proiektuak.

Erakunde edo pertsona eskatzaileek gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dituzte, honako baremo hauek kontuan hartuta:



Muskizko Udala
Ayuntamiento de Muskiz

12. Aintzat hartuko da proiektua abian jartzeak ekarriko duen gizarte eragina, lurralde eremu, biztanleria (biztanle horien kopurua eta aniztasuna), jorrotutako helburuen kopuru, baliabideen aniztasun eta abarrei dagokienez. **Gehienez 15 puntu.**
13. Sexu-diskriminazioaren aurkako baloreak eta jarrera aldaketak bultzatuko dituzten jarduerak. **5 puntu**
14. Aurkeztutako programan urte horretan garrantzi handia izango duten jarduerak sartzea: urteurrenak, biltzarrak eta antzekoak. **10 puntu**
15. Euren helburuen artean talde babesgabeak gizarteratzea zehaztuta duten ekintzak.
..... **Gehienez 20 puntu.**

(Planteamendua, 5 puntu. Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetzat, 20 puntu)

16. Udalerrian ekintzaren edo programaren berri ematea (publizitatea). **5 puntu**
17. Sustapen horretan Gizarte Ekintza Sailaren taldekako jarduerak edo proiektuak interesgarriak direla kontuan hartzea. **Gehienez 15 puntu.**
18. Euskararen erabilera. **5 puntu**
19. Erakundeak egoitza soziala Muskiz udalerrian izatea. **10 puntu**
20. Diruz lagunduko den ekintza edo proiektua Muskiz udalerrian, herri inguruko lurralde-eremuan (auzoak, ...) gauzatzea. **5 puntu**
21. Gutxienez bi urteko iraupena izango duten proiektuen aldeko irizpena.
..... **5 puntu**
22. Deialdi honen aurreko 3 urteetan Gizarte Ekintza Sailaren diru-laguntza jaso izan duten erakundeen aldeko balioespena. **5 puntu**

25 puntu baino gutxiago lortzen duten eskaerei ezetza emango zaie. Deialdi honetarako ezarri den aurrekontua onartutako eskaera guztien artean banatuko da, bakoitzak lortutako puntuen proportzioan, salbuespen hauek aintzat hartuta:

- (3) "Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da aurkeztutako gastuen %75 baino handiagoa izan".
- (4) "Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da deialdi honetarako Gizarte Ekintza Sailak xedatutako guztiaren %20 baino handiagoa izan".
(Bi kasuetan salbuespenak egon litezke, baldin eta behar den bezala arrazoituta badaude eta Gizarte Ekintza Sailak oniritzen baditu).

Elkarte bakoitzari aurkeztutako jardueren kopurua lagunduko zaio diruz.

8. EBAZPENAK JAKINARAZTEA.

Behin ebazpenak eginda, dagokion Sailak idatziz jakinaraziko die eskatzaile guztiei, eta, ondoren, emandako diru-laguntza sartuko die bankuko kontuan.



Muskizko Udala
Ayuntamiento de Muskiz

9. DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETAK.

Jarduera bereziak, gauzatzen direnetik bi hilabeteko epean justifikatu beharko dira. Urteko programak justifikatzeko, berriz, diruz lagundu den programaren hurrengo urteko urtarrilaren 31 izango da azken eguna. Aurretik emandako diru-laguntzak zegokien epeetan justifikatu ez dituzten erakunde edo pertsoneri ez zaie, inola ere, diru-laguntzarik emango.

Diru-laguntzak justifikatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Gastuen laburpen-zerrenda.

2.- Diruz lagundutako jardueraren osotasuna frogatuko duten gastuen jatorrizko fakturak. Fakturok frogatu eta zigilatu ondoren, entitate eskatzaileari itzuliko zaizkio. Faktura horien guztien zerrenda ere aurkeztu behar da.

3.- Diruz lagundutako jarduera edo programen deskripzio- eta balioespen-txostena.

4.- Diruz lagundutako jardueren publizitatean Muskizeko Udalaren laguntza jakinarazi dela egiaztatzen duen agiria.

Muskizeko Udalak behar bezala justifikatu ez den diru-kopurua erreklamatu ahal izango die diru-laguntza jaso duten erakundeei edo pertsoneri.

Muskiz, 2011ko Urriak 10

Sin.: BORJA LIAÑO ABARRATEGI

ALKATE UDALBURUA